**LEHEN PROSZENIA EGOITZA BEKA DEIALDIAREN ESKAERA**

**SOLICITUD DE LA CONVOCATORIA DE LA PRIMERA EDICIÓN DE LA BECA RESIDENCIA PROSZENIA**

## LEHEN PROSZENIA EGOITZA BEKA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

"Andres Isasi" Musika Eskolak lehen **PROSZENIA** egoitza-bekarako deialdia egin du Getxoko Kultur Etxearekin lankidetzan, Getxoarte esparruaren barruan

### 1. JUSTIFIKAZIOA

Jarduera garaikideetan ezin dira saihestu gorputzak duen garrantzia eta haren diskurtso-tentsioak. Azken urteetan hainbat gogoeta egin dira antzezteak ikerketa praktikoen bideratzaile gisa dituen aukeren inguruan, eta gogoeta horiek ibilbide luzea dute.

Ez dago diziplinen arabera banatzerik, eta gero eta gehiagotan aurkitzen dituen aldaketa kontzeptual, teoriko eta formalak oso bestelako diren ezagutza-arloen artean. Lotura horietako gehienak arte eszenikoetan eta gorpuztasunarekin (performance, dantza...) zerikusia duten arteen barruan gertatu dira. Diziplinazko topaleku horien eta testuaren eta ahotsaren arteko erlazioari esker, adierazteko zailak diren elementuak modu argian iragazkortzeko aukera emateaz gain, publikoarengana ere hurbiltzen dira, partekatutako edo elkarrekin eraikitako hizkuntzen bidez.

PROSZENIAren helburua testuinguru adieraztea da, eta horretarako beka baten bidez laguntza ematen da, Getxon ekoizteko eta Getxon bertan egoitza izateko.

### 2. XEDEA

Beka honen xedea da jarduera eszeniko garaikidearen inguruko ikerketa ez-formaleko prozesu eta eremu horiek ezagutzera ematea.

Beka honen xede izan ahalko da, antzeztearekin lotutako lan-prozesu baten bidez gorputzaren eta diskurtsoen arteko erlazioei buruzko informazioa ematen duen edozein ekarpen. Lanaren aztergaia elementu horiei eta beste batzuei buruzko informazioa ematen duen edota gogoeta egiten duen edozein ikerketa praktiko izango da.

Baldintza gisa proiektu guztiek lotura edo lankidetza bat izaten hasi beharko dute Getxoko

## BASES REGULADORAS DE LA LA PRIMERA BECA RESIDENCIA PROSZENIA

La Escuela de Música "Andrés Isasi", en colaboración con el Aula de Cultura de Getxo, dentro del marco de Getxoarte, convoca la primera beca residencia **PROSZENIA.**

### 1. JUSTIFICACIÓN

La importancia del cuerpo y sus tensiones discursivas en las prácticas contemporánea es ineludible. En los últimos años las reflexiones en torno a las posibilidades de lo escénico como posibilitador de investigaciones prácticas son innumerables y tienen gran recorrido.

No existen compartimentos disciplinares y cada vez con mayor frecuencia nos encontramos trasvases conceptuales, teóricos y formales entre áreas de conocimiento muy dispar. Gran parte de estos nexos se han venido a producir en el contexto de las artes escénicas y las artes relacionadas con la corporalidad (performance, danza...). La relación de estos lugares de encuentro disciplinar con el texto y la voz permiten además permeabilizar de una forma clara elementos difícilmente enunciables y acercarlos al público mediante lenguajes compartidos o incluso construidos conjuntamente.

PROSZENIA pretende señalar este contexto, mediante un apoyo en forma de beca de producción y residencia en Getxo.

### 2. OBJETO

El objeto de esta beca es visibilizar procesos y espacios de investigación no formal en torno a la práctica escénica contemporánea.

Podrá ser objeto de esta beca cualquier aportación que arroje luz sobre las relaciones del cuerpo con los discursos mediante un proceso de trabajo vinculado a lo escénico. El tema de estudio sobre el que versará el trabajo será cualquier investigación práctica que aporte información y/o reflexione sobre estos u otros elementos.

Se precisará, como requisito, que los proyectos tomen como punto de partida una vinculación o

udalerriarekin eta haren eragileekin, edo haiekin ekintzak egin beharko dituzte.

Hauek dira programa honen helburuak:

a) Ikerketa eta ekoizpen artistikoa sustatzea.

b) Bertako sortzaileak sustatzen laguntzea.

c) Bertako sortzaileek artearen eta kulturaren arloko beste artista eta profesional batzuek elkarri eragin diezaioten erraztea.

Proiektuaren azken forma bere metodologiaren araberakoa izango da, eta nahitaezkoa izango da lana koherentziaz egituratzea, proiektuetan bitartekaritza oinarri gisa sar dadila modu positiboan baloratuz.

Lanek argitaragabeak izan beharko dute. Parte-hartzaileek deialdi honen barruan garatzen den lan eszenikoaren jatorrizkotasuna eta egiletasuna bermatuko dute, eta beste antzeko deialdietara ez direla aurkeztu, ez direla argitaratu eta ez direla estreinatu ziurtatuko dute.

Musika Eskolak beka esleitu gabe uzteko eskubidea izango du aurkeztutako proiektuen balorazioa ez bada positiboa.

Musika Eskolak 5 orduko nahitaezko tutoretza ezarriko du ikerketaren jarraipena egiteko. Horretarako, Musika Eskolak Kultur Etxearekin lankidetzan eta Udalburutzaren ebazpenaren bidez izendatutako pertsona aditu bat izango du. Tutoretza orduen kostua 75,00 € izango da orduko (% 15eko atxikipenarekin).

colaboración con el municipio de Getxo y sus agentes o se concrete en acciones con éstos.

Con este programa se pretende:

a) incentivar la investigación y producción artística;

b) contribuir a la promoción de los creadores locales;

c) facilitar la interacción de los creadores locales con otros artistas y profesionales del arte y la cultura.

La forma final del proyecto atenderá a su propia metodología, siendo obligatorio que el trabajo se estructure con coherencia y valorando de forma positiva que en los proyectos se incorpore la mediación como elemento cimentante.

Los trabajos deberán ser inéditos. Las personas participantes se harán cargo de la originalidad y la autoría de la pieza escénica que desarrollen dentro de esta convocatoria, que en ningún caso habrán sido ni publicadas, estrenadas, ni presentadas a otras convocatorias similares.

La Musika Eskola se reserva el derecho a declarar desierta la beca en caso de que los proyectos presentados no sean valorados positivamente.

El Musika Eskola establecerá 5 horas de tutoría obligatorias para el seguimiento de la investigación. Para ello se contará con la colaboración de una persona experta designada por la Musika Eskola en colaboración con el Aula de Cultura y nombrada por Resolución de Presidencia. Las horas de tutoría se cobrarán a 75,00 € hora (sujeto a retención 15% IRPF).

## 3. BEKA ERABILTZEKO EPEA

Aukeratutako ikerketa-proiektuaren iraupena sei hilekoa izango da, **2018ko azaroaren 1etik 2019ko apirilaren 30era arte.**

Romo Kultur Etxean (RKE) gauzatu beharko da, etenik gabe, eteteko baimena badu salbu.

## 3. PLAZO DE EJECUCIÓN DE LA BECA

La ejecución del proyecto de investigación seleccionado tendrá una duración de seis meses, **entre el 1 de noviembre de 2018 y el 30 de abril de 2019.**

Deberá desarrollarse en la Romo Kultur Etxea (RKE) de forma ininterrumpida, salvo autorización.

## 4. HARTZAILEAK

Espainiako Estatuan administrazio-egoitza egiaztatzen duen 18 urtetik gorako edozein pertsonak jaso dezake beka.

## 4. PERSONAS DESTINATARIAS

Podrán optar a la beca cualquier persona mayor de 18 años que acredite vecindad administrativa en el territorio del Estado español.

Beka banaka edo taldeka lor daiteke.

Taldeka parte hartzen bada, pertsona bat izendatu beharko da ordezkari gisa eskaera aurkezteko eta Musika Eskolarekin solaskide moduan aritzeko. Kasu horretan solaskide eta kudeatzaile moduan jarduteko bakarrik izango da ordezkaria, ez beka bera kobratzeko, izan ere, taldeko kide bakoitza onuraduna izango da. Beraz, laguntza zati berdinetan banatuko da.

Beka hori arte eszeniko garaikideen eta gorputzeko jarduera esperimentalen munduarekin lotutako sortzaileentzat bereziki da, haien prestakuntza eta metodologiak edozein direla ere.

Se podrá optar a la beca individualmente o en grupo.

En caso de participar en grupo, deberá designarse una persona como representante para la presentación de la solicitud e interlocución con la Musika Eskola. En tal caso, esta persona sería la representante sólo a efectos de interlocución y gestión, no de cobro de la propia beca, ya que cada integrante del equipo tendrá la condición de persona beneficiaria, y por tanto la ayuda se repartirá en partes iguales.

Esta beca está especialmente dirigida a creadores y creadoras vinculados al mundo de las escénicas contemporáneas y las prácticas corporales experimentales, sea cual sea su formación y sus metodologías.

## 5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Beka jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek:

- Gehienez hamabost (15) folioko **lan-proiektu** bat. Hor, honako hau jasoko da: **2018 PROSZENIA EGOITZA BEKA**, hauek adierazita:

IZENBURUA

IZENA

HELBURUAK

LABURPEN TEORIKOA

PROPOSAMEN ETA GARAPEN FORMALA (beharrezkoa den informazio guztiarekin, hobeto ulertzeko)

LAN EGUTEGIA

AURREKO LANEN DOSIERRA

Bekaren hautagaien CURRICULUAM.

Proiektuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkez daitezke. Makinatuta egon behar dira, espazioa bikoitzean, alde bakarrean idatzita, eta koadernatuta.

- Izena emateko inprimakia beteta, www.getxo.eus webgunean eskuragarri dago
- NANaren fotokopia

## 5. DOCUMENTACION A PRESENTAR

Para poder optar a la beca, las personas participantes deberán presentar:

- Un **proyecto de trabajo** no superior a quince folios (15) haciendo constar: **BECA DE RESIDENCIA PROSZENIA 2018** que incluirá:

TITULO

NOMBRE

OBJETIVOS

BREVE APROXIMACIÓN TEÓRICA

PROPUESTA Y DESORROLLO FORMAL (con toda la información necesaria para su comprensión)

CALENDARIO DE TRABAJO

DOSSIER DE TRABAJOS ANTERIORES

CURRICULUM de la/s persona/s que optan a la beca

Los proyectos podrán ser presentados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, mecanografiados a doble espacio por una sola cara y encuadernados.

- Formulario de inscripción cumplimentado, disponible también en www.getxo.eus
- Fotocopia del DNI

- Errolda-ziurtagiria edo Espainiako Estatuko administrazio-egoitzaren egiaztagiria
- Ikerketa taldeko kide guztien ziurtagiriak, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharrak egunean dituztela frogatzen dutenak

- Certificado de empadronamiento o documento que acredite la vecindad administrativa en el Estado español
- Certificado de hallarse al corriente con Hacienda y la Seguridad Social de cada uno/a de los integrantes del equipo de investigación.

## 6. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak aurkeztu beharko dira bai telematikoki www.getxo.eus web orrialdean bai "Andrés Isasi" Musika Eskolako Erregistro Orokorrean, Las Merceds 6an, astelehenetik ostegunera 9:30etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte, eta 08:30etik 14:30era ostiraletan, bai Getxoko Kultur Etxeko Erregistro Orokorrean, Villamonte A-8an, astelehenetik ostegunera 9:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte, eta 08:30etik 14:30era ostiraletan ; edo 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 16.4 artikuluan aurreikusten duen beste edozein lekutan. Posta bitartez bidalitako eskaeretan proiektuak duen zigilu marka izango da proiektua ezarritako epeen barruan aurkeztu diren lekuko.

Informazioa eta eskaerak udaleko webgunean ere eskuratu ahalko dira (**www.getxo.eus**).

Prozedura honekin zerikusia duten galderak egiteko helbide honetara jo daiteke: getxoarte@getxo.eus.

Aurkezteko epea **2018ko irailaren 3tik 2018ko irailaren 21ra arte** izango da.

Eskaerak oinarri zehatz hauen I. eranskinean agertzen den eskabide normalizatuan beteko dira nahitaez.

Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira. Gainera, izapide gehiagorik gabe artxibatuko dira.

Beka honetara aurkeztuz, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira.

## 6. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes deberán presentarse bien de forma telemática en www.getxo.eus en el Registro General de la Escuela de Música "Andrés Isasi", situado en Las Mercedes 6, en horario de 9:30 a 13:30 y de 16:00 a 19:00 horas de lunes a jueves y 08:30 a 14:30 horas los viernes, en el Registro General del Aula de Cultura de Getxo, situado en Villamonte A-8, en horario de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:00 horas de lunes a jueves y 08:30 a 14:30 horas los viernes así como en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas. En las solicitudes remitidas por correo será la fecha del matasellos en el propio proyecto la que testifique la presentación dentro de los plazos establecidos.

La información y solicitudes estarán también disponibles en la Web municipal (**www.getxo.eus**).

Podrán realizarse consultas relacionadas con este procedimiento en el siguiente email: getxoarte@getxo.eus.

El plazo para la presentación será **del 3 de septiembre de 2018 al 21 de septiembre de 2018**.

Las solicitudes se cumplimentarán obligatoriamente en la instancia normalizada que figura en el Anexo I de las presentes Bases.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

La presentación a esta Beca presupone la aceptación en su totalidad de las presentes bases.

## 7. BEKA EMATEKO PROZEDURA

Araubidea lehiaketa da; aurkeztutako proiektuak 8. atalean jasotako balorazio

## 7. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA BECA

El régimen es el de concurrencia competitiva, se compararán los proyectos presentados en función

irizpideen arabera konparatuko dira. Horrela, puntuaziorik altuena jasotako proiektuari emango zaio beka.

## 8. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Hurrengo balorazio irizpideak ezartzen dira eta gehieneko puntuazioa 25 puntukoa izango da. Hauek dira irizpideak:

| BALORAZIO-IRIZPIDEAK | Gehieneko puntuazioa: 25 puntu. |
|---|---|
| 1. Proiektuaren interesa Getxori egiten dion ekarpen baliotsuagatik. | 4 puntu, gehienez ere. |
| 2. Proiektuaren interesa ikerketa-lan eszenikoari egiten dion ekarpenarengatik. | 4 puntu, gehienez ere. |
| 3. Proiektuak mendeko sentikortasunak eta diskurtsoak jasotzeko modua. | 4 puntu, gehienez ere. |
| 4. Proiektuaren bideragarritasuna (proiektua egin ahal izatea) | 3 puntu, gehienez ere. |
| 5. Helburuen eta proposatutako metodologiaren arteko koherentzia | 3 puntu, gehienez ere. |
| 6. Gaia ezagutzea | 3 puntu, gehienez ere. |
| 7. Proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna | 2 puntu, gehienez ere. |
| 8. Bertako sortzaileek aurkeztutako proposamena | 2 puntu, gehienez ere. |

## 9. EPAIMAHAIA

Proiektua aukeratzen duen epaimahaia ondoko hauek osatuko dute:

- Kultura teknikari bat.

de los criterios de valoración recogidos en el apartado 8 y se otorgará al proyecto que haya obtenido mayor puntuación.

## 8. CRITERIOS DE VALORACIÓN

Se establecen los siguientes criterios de valoración en una puntuación máxima de 25 puntos según los siguientes criterios:

| CRITERIOS DE VALORACIÓN | Máxima puntuación: 25 puntos |
|---|---|
| 1. Interés del proyecto por el aporte de valor que realiza al municipio. | Hasta 4 puntos |
| 2. Interés del proyecto por su aporte al trabajo de investigación escénica | Hasta 4 puntos |
| 3. Manera en que el proyecto recoge sensibilidades y discursos subalternos | Hasta 4 puntos |
| 4. Viabilidad del proyecto (que el proyecto pueda llevarse a cabo) | Hasta 3 puntos |
| 5. Coherencia entre los objetivos y la metodología planteada | Hasta 3 puntos |
| 6. Conocimiento del tema | Hasta 3 puntos |
| 7. Claridad y concreción en la propuesta | Hasta 2 puntos |
| 8. Propuesta presentada por creadores locales | Hasta 2 puntos |

## 9. JURADO

El Jurado que seleccione el proyecto estará formado por:

- Un/a Técnico/a de Cultura,

• Getxoarteko programen zuzendaria.

• Antzezpenaren munduarekin lotutako bi pertsona.

Dena den, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, emakume eta gizonen artean berdintasuna egon beharko da osaeran.

Behin epaimahaikideak izendatuta, Musika Eskola TEAko lehendakaritzaren ebazpenaren bidez onetsiko da osaera.

Epaimahaiari dagokio lana ebaluatzea eta parte-hartzaileak hautatzea. Epaimahaiaren ebazpena apelaezina izango da.

Epaimahaikide bakoitzarentzat (Kulturako teknikariarentzat eta Getxoarteko Programa zuzendariarentzat izan ezik) 300,00 euroko ordaina ezartzen da.

• El Director de programas de Getxoarte, y

• Dos personas vinculadas al mundo de la escénica

En todo caso, su composición será acorde a la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres.

Una vez designados los miembros del jurado, la composición del mismo se aprobará mediante Resolución de Presidencia del OAL Musika Eskola.

Corresponde al jurado evaluar la obra y seleccionar a los participantes. La resolución del jurado será inapelable.

Se establece una dieta de 300,00 euros para cada una de los integrantes del jurado, a excepción de el/la Técnico/a de Cultura y del director de Programa de Getxoarte.

## 10. BEKAREN ZENBATEKOA

Bekaren zenbatekoa bost mila eurokoa izango da (5.000,00 euro).

Beka Musika Eskola TEAren aurrekontuaren kontura ordainduko da, aurrekontu-sail honen barruan:

00700/32600/4820000 Bekaka, Sariak.

## 10. IMPORTE DE LA BECA

La dotación económica de la Beca será de cinco mil euros (5.000,00 euros).

El abono de la beca se realizara con cargo al presupuesto del OAL Musika Eskola, partida presupuestaria de imputación 00700/32600/4820000 Becas, Premios

## 11. EBAZPENA ETA ORDAINKETA

Oinarri zehatz hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio organismoa izango da Musika Eskolako administrazio unitatea.

Ebazteko organo eskuduna organismoko presidentea izango da, aurretik aipatutako epaimahairen proposamena kontuan hartuta.

Ebazpena emateko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proiektuak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Bi zatitan ordainduko da: % 75 hautatzen dutenean, proiektua garatzeko beharrezko finantzaziotzat jotzen delako, eta gainerako % 25 azken txostena entregatzean, betiere helburuak bete badira. Xede horretarako, azken txostena aurkeztu ondoren, Musika Eskolako teknikari batek balorazio-txosten bat idatziko du.

## 11. RESOLUCIÓN Y PAGO

El órgano instructor para la concesión de las ayudas recogidas en las presentes bases específicas será la unidad administrativa de la Musika Eskola.

El órgano competente para resolver será la Presidente del Organismo, a propuesta del Jurado referido anteriormente.

El plazo máximo para dictar resolución será de dos meses, a contar desde el fin del plazo establecido para la presentación de proyectos.

La forma de pago de esta cantidad será en dos partes: el 75% una vez seleccionado, toda vez que se considera financiación necesaria para el desarrollo el proyecto y el 25% restante a la entrega del informe final, siempre que los objetivos se hayan cumplido. A este efecto, tras la presentación del informe final, se redactará un informe de valoración por un/a técnico/a de la Musika Eskola.

Emandako diru-laguntzak diru-laguntzen datu base nazionalean argitaratuko dira. Horrez gain, interesa dutenei epaiaren berri ere emango zaie

Las subvenciones concedidas se harán públicas mediante su envío a la BDNS. Asimismo, se dará cuenta del fallo a las personas interesadas.

## 12. IKERKETAREN ZERBITZURA JARTZEN DIREN BALIABIDEAK

Ikerketa garatzen den bitartean agian udalerriak duen baliabideren bat beharrezkoa izango da.

Musika Eskolak beharrezko kudeaketak egingo ditu hautatutako pertsonak proiektua garatzeko beharrezkoak dituen tokiak erabiltzeko aukera izan dezan, hala nola Musika Eskolako gelak, lan- eta bilera-eremuak Villamonteko eta San Nikolaseko Kultur Etxeetan, gorputz-adierazpenerako eremuak eta Romo Kultur Etxeko erakusketa eszenikoa.

## 12. RECURSOS QUE SE PONEN AL SERVICIO DE LA INVESTIGACIÓN

En el marco del desarrollo de la investigación en alguno o varios momentos será necesario apoyarse en alguno de los recursos de que dispone el municipio.

Desde la Musika Eskola se realizarán las gestiones necesarias para poner a disposición de la persona/s seleccionada los recursos espaciales necesarios para desarrollar el proyecto entre los que se encuentran, las aulas de la Musika Eskola, espacios de trabajo y reunión en la Kultur Etxea de Villamonte y San Nikolas, así como los espacios dedicados a la expresión corporal y la muestra escénica en Romo Kultur Etxea.

## 13. HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN TITULARREN BETEBEHARRAK

Hauek izango dira hautatutako pertsonen betebeharrak:

- Lan eszeniko bat garatzea eta sortzea tutoretza-prozesuaren ondorioz, eta hala eskatzen duenean, Getxoarteko programetan aktiboki parte hartzea.
- Lana gauzatzeak eragindako gastuak bere gain hartzea, lokalak erabiltzeagatiko gastuak eta estreinaldiarenak izan ezik.
- Azken ikerketa-txosten bat aurkeztea 2019ko ekainaren 1 baino lehen. Txosten horretan, prozesua deskribatzen duen memoria bat eta emaitzen balorazioa jasoko dira. Bestalde, ezarritako helburuen betetze-maila eta izandako gizarte-eragina ebaluatuko dira. Memoriak prozesuaren faseei eta parte-hartzaileek egindako balorazioei buruzko argazkiak eta bideo bat (2-3 minutukoa) jaso beharko ditu.
- Musika Eskolak Getxoarteren programen barruan lana estreinatzeko erabili ahal izango

## 13. OBLIGACIONES DEL/LA TITULAR/ES DEL PROYECTO SELECCIONADO

Las personas seleccionadas estarán obligadas a:

- Desarrollar y crear una pieza escénica como resultado del proceso tutorizado y a participar activamente en los programas de Getxoarte cuando así sean requeridas.
- Hacerse cargo de los gastos originados como resultado de la ejecución de la pieza, a excepción de los gastos por uso de los locales y las relativas al estreno de la misma.
- Presentar un informe final de investigación, en cualquier caso, antes del 1 junio de 2019. Este informe contendrá una memoria descriptiva del proceso de realización, así como de la valoración de los resultados, evaluando el grado de cumplimiento de los objetivos planteados y el impacto social producido. La memoria deberá contener fotografías y un video (de 2 a 3 minutos de duración) relativos a las diferentes fases del proceso y de su valoración por parte de los participantes.
- Garantizar que la Musika Eskola pueda utilizar la pieza para su estreno dentro de los

duela bermatzea. Horretarako, teknikoki lagunduko du.

- Bere eskura jartzen den eremua erabiltzeko barne arauak betetzea (ordutegiak, segurtasun-protokoloak, materialaren erabilera, instalazio erabilgarriak eta abar).
- Programaren babespean antola daitezkeen komunikazio eta bitartekaritza ekintzetan parte hartzea (ateak zabaltzeko jardunaldiak, prentsaurrekoak, hitzaldiak, topaketak...).
- Ikerketan parte hartzen duten adingabeen legezko ordezkarien baimenak biltzea, esku-hartzeak hala eskatzen badu.

  Saria jaso eta gero editatutako lan guztietan eta egindako agerraldi publiko guztietan adierazi egin beharko da Musika Eskolako laguntza jaso dela, eta Kultur Etxeko eta Getxoko Udaleko logotipoek agertu egin beharko dute.
- Programa garatzean hartzen diren irudiak (argazkiak, bideoak eta abar) informazio-, dokumentazio- edo sustapen-jarduueretan erabiltzeko baimena ematea.

programas de Getxoarte, para lo cual se apoyará técnicamente.

- Cumplir las normas internas para la utilización del espacio que se ponga a su disposición (horarios, protocolos de seguridad, utilización del material, instalaciones disponibles, etc.)
- Participar en las acciones de comunicación y mediación que pudieran organizarse al amparo del programa (jornadas de puertas abiertas, ruedas de prensa, charlas, encuentros…)
- Recabar los permisos de las personas que ostenten la representación legal de los y las personas menores de edad que participen en la investigación siempre que su intervención así lo requiera.

  En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar la ayuda de la Musika Eskola, así como los logos de la misma, del Aula de Cultura y Ayuntamiento de Getxo.
- Prestar su consentimiento para que las imágenes que les sean tomadas (fotos, vídeos, etc.) dentro del desarrollo del programa puedan ser utilizadas en actividades de información, documentación o promoción.

## 14. BESTE BATZUK

Oinarrietan aurreikusten ez diren egoeretan, epaimahaiak erabakiko du.

Beka jasotzen ez duten proiektuak lanak esleitzen direnetik hiru hilabetera jasoko ahalko dira Getxoko Kultur Etxetik, 09:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:00etara astelehenetik ostegunera, eta 08:30etik 14:30era ostiraletan. Epe hori igarotakoan Musika Eskolak ez du erantzukizunik izango jaso ez den materialean.

## 14. OTROS

Cualquier situación no prevista en las mismas será resuelta por el jurado.

Los proyectos no becados podrán retirarse de la Escuela de Música “Andrés Isasi”, una vez transcurridos 3 meses desde la adjudicación de los trabajos en horario de 9:30 a 13:30 y de 16:00 a 19:00 horas de lunes a jueves y 08:30 a 14:30 horas los viernes. Trascurrida esta fecha, la Musika Eskola no se responsabiliza del material no recogido

Getxo
bizi ezazu

# LEHEN PROSZENIA EGOITZA BEKA DEIALDIAREN ESKAERA

# SOLICITUD DE LA CONVOCATORIA DE LA PRIMERA EDICIÓN DE LA BECA RESIDENCIA PROSZENIA

Euskadi 2006

| **ESKATZAILEA** / SOLICITANTE | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak edo sozietatearen izena**<br>Nombre y apellidos o razón social | | |
| **NAN/IFZ**<br>DNI/NIF | **Helbidea**<br>Dirección | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C.P. | ☎ |
| 📱 | @ | |

| **ORDEZKARIA** / REPRESENTANTE | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak**<br>Nombre y apellidos | | |
| **NAN**<br>DNI | **Helbidea**<br>Dirección | |
| **Udalerria**<br>Municipio | **P.K.**<br>C.P. | ☎ |
| 📱 | @ | |

## **ESKAERA** / SOLICITUD

**Lehen PROSZENIA egoitza-bekarako deialdia eta oinarrien berri izan dut eta oinarriak bere osotasunean onartzen ditut**

He tenido conocimiento de la convocatoria y bases reguladoras de la primera edición de la BECA RESIDENCIA PROSZENIA, cuyas bases reguladoras acepto en todos sus extremos.

**Lehiaketan parte hartzea eskatzen dut**

Solicito sea admitido al citado concurso

**Horretarako, oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkezten dut**

A tal efecto presento la documentación exigida en las Bases:

- ☐ Lan proiektua / Proyecto de trabajo
- ☐ NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI
- ☐ Certificado de hallarse al corriente con Hacienda y la Seguridad Social de cada uno/a de los integrantes del equipo de investigación.
- ☐ Certificado de empadronamiento o documento que acredite la vecindad administrativa en el Estado español (salvo empadronados en Getxo, haciéndose constar esta circunstancia)

**Getxo(n),** ______________________________________________

**Sinadura** / Firma

Agiri honetako datu pertsonalak interesdunaren onespenaz jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta ondorioz, Getxoko Udal eta Erakunde Autonomoetako Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoa) aurreikusitakoa gertatzen denean izan ezik, orduan beste administrazio publikoei edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango baitzaizkie. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Herritarren Arreta Bulegoetan (HAB).

Los datos personales contenidos en el presente documento han sido recogidos bajo el consentimiento de la persona interesada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de las Oficinas de Atención Ciudadana (OAC).